


MUTUALIAREN GIZARTE ZERBITZUEN KARTA

Laneko istripua jasan duten edo gaixotasun profesionala duten langileentzat eta haien familientzat

Prestazio Berezien Batzordea

2025



“Besteei gehien laguntzen dietenak dira zoriontsuenak”

Booker T. Washington

AURKIBIDEA

SARRERA

3

Zer dira asistentzia sozialeko prestazioak?
 Nor izan daiteke prestazio horien onuradun?
 Nork aitortzen ditu laguntza edo onura hauek?
 Nola finantzatzen dira?
 Zenbateko laguntza edo onurak dira?
 Zer baldintza bete behar dira laguntzak edo onurak eskatzeko?
 Nola eska ditzaket laguntza edo onura sozial hauek?
 Nola kudeatzen dira jasotako eskariak?
 Gida honen xedea

1. ERREHABILITAZIOA ETA SUSPERTZEA

6

1.1. Aldi baterako egoitza-arreta soziosanitarioa	6
1.2. Erietxeratzeari lotutako gastuetarako laguntza	7
1.3. Protesiak eta arautu gabeko laguntza teknikoak	8
1.4. Tratamendu mediko edo terapia ez-arautuetarako laguntza	10

2. LANBIDE-BERRORIENTAZIOA ETA LANPOSTUAREN EGOKITZAPENA

11

2.1. Lanbide heziketako eta laneratzeko eta gizarteratzeko ikastaroak	11
2.2. Langile autonomoak jardura egiten duen lokalaren egokitzapena	12

3. EGUNEROKO BIZITZARAKO OINARRIZKO JARDUERAK GARATZEKO FUNTSEZKO BALIABIDEAK EGOKITZEKO LAGUNTZAK

13

3.1. Ohiko etxebizitzan oztopo arkitektonikoak kentzeko laguntza	13
3.2. Etxebizitza egokitu erosteko laguntza	14
3.3. Ibilgailua egokitzeko edo ibilgailu egokitu berria erosteko laguntza	14
3.4. Etxeko laguntza, eguneroko bizitzako oinarriko jardueretarako	15
3.5. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak eskuratzeko laguntza	17

4. BESTE PRESTAZIO BATZUK

17

4.1. Heriotzagatiko laguntzaren osagarria	17
4.2. Baliaezintasun handiko egoeran dauden pertsonak zaintzeko prestakuntzarako laguntza	18
4.3. Ohiko etxebizitza edukitzeari edo baliatzeari eusteko laguntza	19

SARRERA

Mutualiaren misioa osasunarekiko eta bizi kalitatearekiko konpromiso irmoa da, eta ahalegin berezia egiten du laneko istripu edo gaixotasun profesional baten ondorioz sortutako premiei erantzun integrala emateko.

Gabezia horiek ekonomikoak nahiz asistentzia-koak izan daitezke, hain zuzen ere, Gizarte Segurantzako Zerbitzuen eta Prestazioen Zorroan aurreikusita ez dagoen egoera bati aurre egiteko premia sortzen den kasuetan.

Gizarte Zerbitzuen Karta honen bidez, egoera horiei erantzun nahi diegu, arauzkoez haragoko zerbitzu eta laguntzen katalogo osagarri bat eskainiz Mutualiaren babespeko pertsonari nahiz haien familiei, ongizate ekonomiko nahiz fisiko edo psikiko hobea izan dezaten egoera horien kalte-dun izanez gero.



Zer dira asistentzia sozialeko prestazioak?

Gizarte Segurantzaren arauzko prestazioez bestelako zerbitzu eta laguntza ekonomikoak dira.

Lan-istripu baten edo lanbide-gaixotasun baten (aurrerantzean, LI/LG) ondorioz gertatzen diren eta Gizarte Segurantzaren sistemaren babes-ekintzak estaltzen ez dituen egoera edo premia-egoera bereziei arreta ematea du helburu.

Nor izan daiteke prestazio horien onuradun?

Laneko istripua (LI) jasan duten edo gaixotasun profesionala (GP) duten Mutualiaren babespeko langileak, baita kontingentzia horien ondoriozko pentsiodunak ere.

Ezkontidea edo izatezko bikotekidea eta seme-alabak. Aurrekorik ezean, bilobak eta, halakorik ez bada, gurasoak. Bi kasuetan, istripua izan duen edo gaixo dagoen pertsonarekin bizikidetza-unitate bat osatzen badute.

Salbuespen gisa, edozein senidek, ezkontidek edo izatezko bikotekidek jaso ahal izango du heriotzagatiko laguntza, baldin eta oinordekotza-eskubideak baditu eta ehorzketa-gastuei aurre egin badie, betiere premia egoeran aurkituz gero.

Nork aitortzen ditu laguntza edo onura hauek?

Prestazio Berezien Batzordeak (aurrerantzean, PBB). Batzorde hori hamar kidek osatuta dago: bost dira enpresen ordezkariak, Mutualiaren Zuzendaritza Batzordeak izendatuak, eta beste bost, berriz, langileen ordezkariak, sindikatu-erakundeek izendatuak.

Oro har, hiru hilean behin egiten du bilera Batzordeak, eta aurkeztutako eskari guztiak aztertzen ditu bilera horietan.

Kasuak banan-banan ebazten dira, eskaria aztertuz; eskarian aditzera ematen da zer egoeratan sortu diren LI/LPak, zer muga ezartzen dituzten, premia jakin baten egoera eta zein den familiaren egoera ekonomikoa. Eta Batzordeak, kontuan hartuta egoera eta gorabehera horiek guztiak, zenbateko laguntza eman erabakitzen du; egindako eskaera osorik nahiz partzialki estal dezake onartutako laguntzak.

Prestazio osagarri horiek, indarrean dagoen araudiaren arabera, behin baino gehiagotan, lan-istripu edo lanbide-gaixotasun beraren ondorioz beste premia-egoera bat gertatzen bada.

Nola finantzatzen dira?

Asistentzia Sozialeko Funttsaren kargura, zeina elikatzen baita urtez urteko kontuetan mutualitateak dituen emaitza positiboei esker lortzen den urteko soberakinaz. Lanaren, Migrazioen eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak baimentzen du, urtero, Mutualiak laguntza hauetara bidera dezakeen aurrekontua.

Zenbateko laguntza edo onurak dira?

Zenbatekoa aldatu egiten da onuradunaren premia-egoeraren arabera. Halakotzat hartzen dira LI/LGren ondoriozko lan-gaitasunaren mugak, gertakari horrek eragindako familia-unitatearen diru-sarreraren galera edo gastuen gehikuntza, bai eta haren gizarte-egoera zehatzaren kalteberatasun berezia ere. Gainera, onartutako urteko aurrekontu-partidaren zuzkidura edo erabilgarritasuna hartuko da kontuan.

Zer baldintza bete behar dira laguntzak edo onurak eskatzeko?

- LI bat jasan izana edo GP bat izatea.
- Premia edo ahultasun ekonomikoko egoera zehatz batean egotea.
- Gizarte Segurantzaren prestazioek estaltzen ez duten laguntza bat izatea.
- Enpresa edo langile autonomoa LI edo GPa gertatutako datan Mutualiaren bazkide izatea edo hari atxikita egotea, Kontingentzia Profesionalak estaltzeari dagokionez.
- Laguntza edo onura mota bakoitzerako baldintza espezifikoak.
- Asistentzia sozialeko laguntza hauek onartzeko, beharrezkoa da istripuaren edo gaixotasunaren izaera profesionala aitortuta egotea. Egoera hori judizializatuta badago, ebazpen edo epai irmoa beharko da laguntza onartu aurretik.

Nola eska ditzaket laguntza edo onura sozial hauek?

Asistentzia sozialeko prestazioak eskatzeko inprimakia bete behar da, www.mutualia.eus webguneko inprimakien atalean eskuragarri, eta bide hauetakoren batetik aurkeztu:

- ✓ Mutualiaren edozein zentrotan, Prestazio Ekonomikoen Sailarentzat dela zehaztuta.
- ✓ Posta elektronikoz: prestacionesespeciales@mutualia.es

Nola kudeatzen dira jasotako eskariak?

Mutualiaren Prestazioen Saila eta sail horretako gizarte langileek harreman iraunkorra dute Osasun Arloarekin, eta horrek aukera ematen die laneko istripua jasan duten edo gaixotasun profesionala duten pertsonen premia egoerak atzemateko. Gizarte langileak arduratzen dira, hain zuzen ere, eskariak bideratzeaz, erabilgarri dauden baliabideei egokitzeaz eta Prestazio Berezien Batzordearen (PBB) Bileran aztertzeko kasuak aurkezteaz, betiere Prestazio Berezien Gidak kasu bakoitzerako jasotzen dituen irizpide orokorrak eta baldintzak kontuan hartuta.

Eskaerak gizarte-premiaren balorazioaren arabera aztertzen dira, eta horren barruan sartzen da familia-bizikidetzako unitatearen hileko diru-sarreraren gehieneko baremo bat kontuan hartzea (indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldata erreferentziazat hartuta). Baremo hori familia-unitateak aurre egin beharreko nahitaezko gastu finkoen eta beharrezko aldagaien balorazioak osa dezake.

FAMILIA UNITATEA (elkarrekin bizi direnak edo LI/GParen ondorioz elkarrekin bizi behar dutenak)	Ezintasun iraunkor partziala eta Aldi baterako ezintasuna	Ezintasun iraunkor totala	Ezintasun iraunkor absolutua	Baliaezintasun Handia eta heriotza
	(1,2 LGS)	1,3 LGS	(1,5 LGS)	(1,8 LGS)
1 PERTSONA	1.658 €/hilean	1.796 €/hilean	2.072 €/hilean	2.486 €/hilean
2 PERTSONA (+ 1,2 LGS)	3.315 €/hilean	3.453 €/hilean	3.730 €/hilean	4.144 €/hilean
3 PERTSONA (+ 1,4 LGS)	3.591 €/hilean	3.730 €/hilean	4.006 €/hilean	4.420 €/hilean
4 PERTSONA (+ 1,6 LGS)	3.868 €/hilean	4.006 €/hilean	4.282 €/hilean	4.697 €/hilean
5 PERTSONA (+ 1,8 LGS)	4.144 €/hilean	4.282 €/hilean	4.558 €/hilean	4.973 €/hilean
6 PERTSONA (+ 2 LGS)	4.420 €/hilean	4.558 €/hilean	4.835 €/hilean	5.249 €/hilean

IP ezintasun iraunkorraren akronimoa da

ABE Aldi baterako Ezintasunaren akronimoa da (baja medikoa)

LGS lanbide arteko gutxieneko soldataren akronimoa da

Gida honen xedea

Gida honen helburua honako hauek ezagutaraztea da: gizarte-laguntza jaso dezaketen kontzeptuak, zein onuradunentzat diren, horien finantzaketa eta horiek eskatu ahal izateko baldintzak, abenduaren 7ko 1993/1995 Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzako Lan Istripu eta Lanbide Gaixotasunen Mutuen Lankidetzari buruzko Erregelamenduaren 67. eta 67. bis artikuluetan jasotako gizarte-laguntzako prestazio osagarrien katalogo berriarekin bat etorriz.

1. ERREHABILITAZIOA ETA SUSPERTZEA

Laguntza hauen bidez, babesa eman nahi zaie langileari eta langileen zuzeneko senitartekoei, laneko istripu edo gaixotasun profesional batek kalte ekonomiko larria, asistentzia premia espezifiko bat edo kalteberatasun bereziko egoera eragiten duen kasuetan.

1.1. Aldi baterako egoitza-arreta soziosanitarioa

1.1.1. Aldi baterako ezintasun-egoeran dauden pertsonak

Laguntza hau zuzenduta dago lesionatutako pertsonari, baldin eta, laneko istripuaren edo gaixotasun profesionalaren ondoriozko muga fisiko/psikikoak direla-eta, eta beren ezaugarri sozio-familiarrak direla-eta, erietxeko alta jaso ondoren, ezin badira etxera itzuli, etxearen ezaugarriengatik (oztopo arkitektonikoengatik), ezin dituztelako behar diren zainketak jaso (familia-sarerik ez dutelako edo sareak zainketa horiek emateko gaitasunik ez duelako), edo eguneko zati batean etxeko laguntza aski ez delako, eta, beraz, aldi baterako egoitza batean sartu behar badute, arreta pertsonaleko beharrak betetzeko, osasun-tratamendu espezializaturik behar izan gabe.

Laguntza aitortzeko baldintzak

- Familiaren egoerari buruzko gizarte-txostena, familiaren euskarri sozio-familiarrik ez dagoela, nahikoa ez dela edo desegokia dela baieztatzeko, eta, halaber, etxebizitza lesionatutako pertsona etxean zaintzeko desegokia dela berresteko.
 - Egoitzako aldi baterako egonaldiak ez du tratamendu medikoaren parte izan behar.
- #### 1.1.2. Ezgaitasun handia duen pertsonak aldi baterako egonaldia egitea egoitza batean
- Laguntza honen bidez, Baliaezintasun Handiko pentsiodunen arretarako aldi baterako egoitza zerbitzuaren kostua estaltzen da, eta pentsiodun horien zainzaileen (senitartekoak edo bizikidetzaz baliokideak direnak) bizi kalitatea hobetzea da xedea.
- Laguntzaren helburua da, hain zuzen ere, atsedenaldia ematea zainzaileei, baita lesioa duen pertsonari behar duen arreta ematea eragozten duten ezusteko familia egoera jakin batzuei erantzutea ere (erietxeratzea, familia arrazoiengatik ezusteko bidaia eta abar).



Laguntza aitortzeko baldintzak

- Premia ekonomikoko egoera egiaztatzea, katalogo honen sarrerako atalean agertzen diren parametroen arabera.
- Laneko istripuagatiko edo gaixotasun profesionalagatiko Baliaezintasun Handiko pentsioduna izatea.
- Aldi batez egoitza batean sartzeak ez du izan behar Mutualiak eman beharreko osasun tratamenduaren parte.
- Medikuaren agindua.
- Gizarte txostena, zeinetan aditzera ematen baita ezgaitasun handiko pertsonari aldi batez arreta ematea eragozten dion zainzailearen premia espezifikoa.

1.2. Erietxeratzeari lotutako gastuetarako laguntza

Laguntza honen bidez, istripua izan duen edo gaixo dagoen pertsonaren eta haren laguntzailearen joan-etorriko gastuak, egonaldikoak eta dietak konpentsatuko dira, behar izanez gero.

Istripua izan duena edo gaixorik dagoen pertsonaren beraren kasuan, Gizarte Segurantzaren babes-ekintzan sartzen ez diren gastuak ordainduko lirateke (aparkalekua, autobidea...).



Laguntzaileak izanez gero, laguntzak garraio-, mantenu- eta ostatu-gastuak konpentsatuko ditu, “laguntzaren zenbatekoa” atalean adierazitako moduan.


Laguntzailatzat hartuko da lesioa duen langileari joan-etorrietan edo erietxeko egonaldian nahiz Mutualiako asistentzia zentroetako edo beste zentro itundu batzuetako mediku kontsultetara joatean laguntzen dion pertsona, baldin eta Entitate honen Mediku Zerbitzuak bere laguntza premiazkoa dela adierazi badu.

Laguntza aitortzeko baldintzak

- Mutualiaren zerbitzu medikoaren txostena, laguntza beharrezkoa dela adieraziz.
- Itzultzeko eskatutako gastu bakoitzaren fakturak edo egiaztagiria izatea.

Laguntzaren zenbatekoa

- Garraio gastuak: erabilitako garraiobidearen arabera zenbatekoa. Norberaren ibilgailua erabiliz gero, 0,26€/km, eta gastu gehigarriak, hala nola TAO, aparkalekua, autobidea eta abar.
- Ostatu gastuak: banan-banan aztertuko dira kasuak eta zenbatekoak.
- Mantenu gastuak: gaua pasatuz gero, 53,34 €/egun ordainduko da. Laguntzaileak gaua ematen ez badu, 26,67 €/egun, gehienez ere.



1.3. Protesietarako eta arautu gabeko laguntza teknikoetarako laguntzak

Gaitasunak murriztuta dituen pertsonen ahalmenei eusten laguntzeko edo/eta horien zaintzaileen lanak eta etxeko arreta errazteko objektu, produktu edo zerbitzuak dira. Atal honetan sartzen dira, halaber, pertsonarteko harremanak eta familia ingurunearekiko harremanak hobetzeko edo egokitzeko laguntza teknikoak.

Osasun Sistema Nazionaleko Zerbitzu Komunen Zorroak –1030/2006 Errege Dekretuak eta hura garatzen duen araudiak arautua– laguntza teknikoen katalogo bat ezartzen du, Osasun Sistemak zuzenean finantzatutako laguntzek osatua. Laneko istripuaren edo gaixotasun profesionalaren ondorio diren kasuetan, katalogo honetan aurreikusitako laguntzak Mutuialiako Asistentzia Sanitarioko sailak emango ditu.

1.3.1 Arautu gabeko laguntza teknikoak – ibilgailu eta altzari bereziak.

Katalogo honetan eskaintzen diren laguntza teknikoak, beraz, Zorro horretan aurreikusitakoen osagarri dira; honako hauek biltzen ditu: gurpil aulki elektrikoa, eskarak saihesteko koltxoia, ohe kliniko artikulatu elektrikoa, garabi elektriko arnesduna, bainuontzi edo/eta duxarako aulkia, tokialdatzeko ohola, eskaileretarako beldar katea, elikatzeko eta etxeko lanetarako lagungarriak, baita jarduera jakin batzuk egiteko laguntza espezifikoak ere (esaterako, kirolerako gurpil aulki bereziak, *handbikeak*, etxean gimnasia pasiboa edo aktiboa egiteko tresnak eta abar).

Laguntza aitortzeko baldintzak

- Laneko istripu edo gaixotasun profesionalaren ondorioz muga funtzionalak izatea eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretarako, eta komenigarria izatea muga horiei aurre egiteko eskatutako laguntza teknikoa erabiltzea, iraunkorki nahiz aldi batez.
- Laguntza teknikoa ez egotea 1030/2006 Errege Dekretuaren arabera Gizarte Segurantzaren prestazioetan sartuta.
- Premia ekonomikoko egoera egiaztatzea katalogo honen sarrerako atalean jasotzen diren parametroen arabera, baliaezintasun handiko egoeran edo antzeko garrantziko desgaitasun-egoeran dauden pertsonen kasuan izan ezik.
- Mutualiako zerbitzu medikoaren txostena, laguntza teknikoaren egokitasuna agintzen duena, eta egoera berezia edo premia egoera baloratzen duen txosten soziala.

1.3.2. Protesi bereziak

Osasun Sistema Nazionaleko Zerbitzu Komunen Zorroak –1030/2006 Errege Dekretuak eta hura garatzen duen araudiak arautua– protesietarako laguntzen katalogo bat ezartzen du, Osasun Sistemak zuzenean finantzatutako laguntzek osatua. Laneko istripu bat edo gaixotasun profesional bat izan dutelako behar izanez gero, Mutualiako asistentzia sanitarioko sailak eman beharko ditu, gertakizun horiek estaltzen dituen Entitatea den aldetik.

Zerbitzu Komunen Zorroak estaltzen ez dituen protesi berezietarako asistentzia hauek barne hartzen dituzte, esate baterako, izaera estetikokoak edo kirol jardueretarakoak.

Laguntza aitortzeko baldintzak

- Laneko istripu edo gaixotasun profesionalaren ondorioz pertsonaren mugikortasun funtzionalari eragiten dioten ondorioak egiaztatzea, eta ondorio horien arabera komenigarria izatea eskatzailearen egoera fisiko edo/eta psikikoa hobetzeko protesi berezia erabiltzea.



- Ez agertzea 1030/2006 Errege Dekretuan asistentzia sanitarioko prestazio gisa, eta Mutualiak horiek emateko betebeharririk ez izatea, aplikatzekoa den jurisprudentziaren arabera.
- Mediku arduradunaren agindua, non berariaz aipatzen baita eskatzailearen premiei egokitutako protesi berezien egokitasuna, eta egoera berezia edo premia egoera baloratzen duen gizarte txostena.
- Premia ekonomikoko egoera egiaztatzea katalogo honen sarrerako atalean jasotzen diren parametroen arabera, baliaezintasun handiko egoeran edo antzeko garrantziko desgaitasun-egoeran dauden pertsonen kasuan izan ezik.

Laguntzaren zenbatekoa

- Oro har, 18.000 euroko gehieneko zenbatekoa ezartzen da, baina edozein premia espezifiko eta lotutako eskaera aztertuko da.

Laguntza aitortzeko baldintzak

1.4. Arautu gabeko tratamendu medikoak edo terapiak

Lesio batzuen ondorioz sortzen den egoera psikofisikoak mutualitate laguntzaileak eman beharrekoak diren ohiko sendatze-tratamenduetan sartzen ez diren tratamendu edo terapiak erabiltzea eska dezake (adibidez: kirola, ezintasunak dituzten pertsonentzako terapia espezifikoak, berariazko tratamendu psikologikoak...).

Laguntza hau mutualitateko medikuek gomendatutako tratamendu edo terapia ez-arruntaren kostua ordaintzeko erabiltzen da, baldin eta helburua istripu edo gaixotasun profesional baten lesio edo ondorioek eragindako egoera psikofisikoa hobetzea bada.

- Mutualiako medikuen txostena, arautu gabeko tratamendua edo terapia gomendatuz.
- Ez agertzea 1030/2006 Errege Dekretuan asistentzia sanitarioko prestazio gisa, eta Mutualiak horiek emateko betebeharririk ez izatea, aplikatzekoa den jurisprudentziaren arabera.
- o Behar ekonomikoko egoera egiaztatzea, katalogo honen sarrerako atalean jasotako parametroen arabera, edo, hala badagokio, egoera edo beharizan-egoera berezia eragin dezaketen beste egoera batzuen balorazioa txosten sozialean.



2. LANBIDE-BERRORIENTAZIOA ETA LANPOSTUAREN EGOKITZAPENA

2.1. Lanbide heziketako eta laneratzeko eta gizarteratzeko ikastaroak

Laneko istripu bat edo gaixotasun profesional bat jasan izanaren ondorioetako bat enplegua galtzea izan daiteke; are gehiago, kontingentzia profesionalen ondoriozko ezintasun iraunkorra eta osoa onartzen denean eta, ondorioz, aurreko lan-harremana amaitzen denean. Egoera horietan, errehabilitazio-prozesuaren barruan, egokia izan daiteke pertsonak berregokitze profesionala planteatzea, beste lan-eremu batean ibilbide berri bat hasteko

Lanbide-berrorientazio hori errazago egiteko, prestazio honen bidez, ordaindu nahi dira laneko istripu edo gaixotasun profesional baten ondorioz lanpostua galdu duten langileen prestakuntza hobetzeko prestakuntza profesionaleko ikastaroek eragindako gastuak eta, orobat, gizarteratzeko eta laneratzeko gastuak, lanbide heziketa garatzeko bekak ematea barnean hartuta, prestakuntza-aldian familia-unitatearen gastuak estaltzen laguntzeko, langabeziagatiko prestazioaren

gehieneko zenbatekoaren % 50era irits baitaitezke.

Laguntza aitortzeko baldintzak

- Laneko istripuaren edo gaixotasun profesionalaren ondoriozko lesioak sendatzeko iraupen luzeko baja medikoa behar izatea, edo ondorio funtzionalak eragin izana istripua edo gaixotasuna izan aurretik zuen lanpostuaren garapenerako.
- Ez egotea lan egoera aktiboan.
- Premia ekonomikoko egoera egiaztatzea, katalogo honen sarrerako atalean agertzen diren parametroen arabera.
- Terapia okupazionalerako laguntza eskatuz gero, txosten bat, zeinetan zehaztuko baita terapiaren edukia eta zer aplikazio duen tratatutako pertsonaren ahalmen fisiko edo psikikoak hobetzeari edo ahalmen horiei eusteari begira.
- Gizarte-txostena, egoera sozioekonomikoa eta familiakoa, berariazko beharra eta interesdunak eskatutako prestakuntzaren egokitasuna baloratuko dituen.

2.2. Langile autonomoak jarduera egiten duen lokalaren egokitzea

Lesio iraunkorren ondorioek pertsonen

mugikortasuna murriztu dezakete. Kasu horietan, laneko edo lanbideko jarduerari berriro ekitea oso konplexua izan daiteke, gerta daitekeelako pertsona hori lanean ari den lokala prestatuta ez egotea egoera berri horietarako.

Laguntza honen xedea da aldaketak egitea jarduerak egiten diren lekuan eta haren sarbideetan, autonomia pertsonal handiagoa izateko eta negozioak hobeki funtzionatzeko; besteak beste, honako hauek sartzen dira:

- Lokala egokitzea (komunerako oztopoak kentzea, ateen tamaina handitzea...).
- Lokalaren barruan edo haren sarbideetan eskailerak igotzeko aulkiak.

Laguntza aitortzeko baldintzak

- Laneko istripuaren edo gaixotasun profesionalaren ondorioz ezintasun iraunkor eta oso gisa kalifikatutako ondorioak dituen lesioa (edo lesioak) izatea, mugikortasunari eragiten diotenak eta lokala eskatzailearen egoera fisikora eta/edo psikikora egokitzeko beharra dakartenak; hau da, beharizan-egoera zehatz bat izatea.
- Premia ekonomikoko egoera egiaztatzea, katalogo honen sarrerako atalean agertzen diren parametroen arabera.
- Egokitzapena egiten den lokalak jardueraren helbidea izan behar du, zerga-ondorioetarako.
- Mediku txostena, edo Mutualiako Gizarte Zerbitzuena, berariaz adieraziz egokitzapenaren beharra, eta premia egoera berezia baloratzuz.

- Premia ekonomikoko egoera egiaztatzea, katalogo honen sarrerako atalean agertzen diren parametroen arabera.
- Etxebizitzako elementu bakoitza behin bakarrik egokituko da, eta, obra bukatutakoan, argazkiak aurkeztuko dira.



Laguntzaren zenbatekoa

Oro har, 18.000 euroko zenbatekoa dago ezarrita laguntza hauetarako, baina premia espezifikoak eta eskari atxikiak aztertuko dira.

- Lokalaren edo egokitu beharreko sarbideen abiapuntuko egoeraren argazkiak eta egokitzeko eskaera zehatzari buruzko obra-aurrekontuak (oztopoak ezabatzeari edo egokitzeari dagozkion partidak soilik).

3. EGUNEROKO BIZITZAKO OINARRIZKO JARDUERAK GARATZEKO FUNTSEZKO BALIABIDEAK EGOKITZEKO

LAGUNTZAK

Atal honetan, laneko istripuaren edo gaixotasun profesionalaren ondoriozko behin betiko ondorioak, bere gaitasun funtzionalari nabarmen eragiten diotenak, dituen pertsona lesionatuari autonomia handiagoa eman behar dioten laguntza batzuk zehazten dira.

3.1. Ohiko etxebizitzan oztopo arkitektonikoak kentzeko laguntza

Lesio iraunkorren ondorioek pertsonen mugikortasuna murriztu ohi dute, maiz; kasu horietan, oso konplexuak gerta daitezke eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak nahiz jarduera instrumentalak, etxebizitza gehienak ez baitaude egoera horietarako egokituak.

Laguntza honen bidez, etxebizitzan eta haren sarbideetan egin beharreko aldaketak estali nahi dira, lesioa duen pertsonaren autonomia areagotzeko eta zaintzaileak arreta hobea eman ahal izateko; honako laguntza hauek sartzen dira atal honetan, adibide modura:

- Etxebizitza (sukaldea, komuna, ateen neurria...) eta garajea egokitzea.
- Etxebizitzaren barruan edo haren sarbideetan eskailerak igotzeko aulkiak.
- Etxebizitzako sarbideetarako arrapalak.

(ezbeharra jasan duenaren senitartekoa edo baliokidea) egokitu behar izatea, baldin eta premiazkoa bada; hau da, premia egoera zehatza egonez gero

- Egokitutako etxebizitza izatea lesioa duen pertsonaren ohiko etxebizitza.
- Mediku txostena, edo Mutuialiaren Gizarte Zerbitzuena, berariaz adieraziz egokitzapenaren beharra, baita egokitzapen horrek nolakoa izan behar duen ere, eta premia egoera berezia baloratuz.
- Egokitu beharreko etxebizitzaren edo sarbideen abiapuntuko egoeraren argazkiak, eta egokitzapen eskari zehatzari dagozkion aurrekontuak (oztopoak ezabatzeari edo egokitzapenari hertsiki lotuak).
- Premia ekonomikoko egoera egiaztatzea katalogo honen sarrerako atalean jasotzen diren parametroen arabera, baliaezintasun handiko egoeran edo antzeko garrantziko desgaitasun-egoeran dauden pertsonen kasuan izan ezik.
- Etxebizitzako elementu bakoitza behin baino ez da egokituko laguntza hauen kontura, eta, obra bukatutakoan, argazkiak aurkeztuko dira.

Laguntzaren zenbatekoa

Oro har, 18.000 euroko gehieneko zenbatekoa dago ezarrita laguntza hauetarako, baina premia espezifikoak eta eskari atxikiak aztertuko dira.

Laguntza aitortzeko baldintzak

- Laneko istripuaren edo gaixotasun profesionalaren ondorioz, ezintasun iraunkor eta oso gisa edo goragoko gradu batean kalifikatutako ondorio iraunkorrak eragin dituen lesioa (edo lesioak) izatea.
- Laneko istripu edo gaixotasun profesionalaren ondorioz ondorio edo lesio iraunkorrak izanik, etxebizitza eskatzailearen egoera fisiko edo/eta psikikoari eta zaintzailearen premiei



3.2. Etxebizitza egokitua erosteko laguntza

Kasu batzuetan, kostu handia izan dezakete ohiko etxebizitza egokitzeak edota oztopo arkitektonikoak kentzeak, ohiko etxebizitza laneko istripu baten edo gaixotasun profesional baten ondorio garrantzitsuak dituen langilearen egoerara egokitzeko. Hori dela eta, aukera pertsonal hobea izan daiteke egokituriko etxebizitza erostea.

Prestazio honen xedea da maila handiko ezintasuna duen pertsonaren ezaugarri fisikoetara egokitutako etxebizitza bat erosteko kostua ordaintzen laguntzea.

Laguntza aitortzeko baldintzak

- Laneko istripuaren edo gaixotasun profesionalaren ondorioz, ezintasun iraunkor eta oso gisa edo baliaezintasun handi gisa kalifikatutako ondorio iraunkorrak eragin dituen lesioa (edo lesioak) izatea.
- Laneko istripuaren edo gaixotasun profesionalaren ondorioz ondorio edo lesio iraunkorrak izanik, etxebizitza eskatzailearen egoera fisiko edo/eta psikikoari eta zaintzailearen premiei (ezbeharrak jasan duenaren senitartekoa edo baliokidea) egokitu behar izatea, baldin eta premiazkoa bada; hau da, premia egoera zehatza egonez gero.

- Premia ekonomikoko egoera egiaztatzea katalogo honen sarrerako atalean jasotzen diren parametroen arabera, baliaezintasun handiko egoeran edo antzeko garrantziko desgaitasun-egoeran dauden pertsonen kasuan izan ezik.

Laguntzaren zenbatekoa

Oro har, 18.000 euroko gehieneko zenbatekoa dago ezarrita laguntza hauetarako, baina premia espezifikoak eta eskari atxikiak aztertuko dira.

Nolanahi ere den, laguntzak ezin izango du gainditu eskatzaileak edo bizi den zuzeneko ahaideak, halakorik bada, lehendik jabetzan zuen etxebizitzaren erosketaren eta salmentaren arteko aldea.

3.3. Ibilgailua egokitzeko edo ibilgailu egokitu berria erosteko laguntza

Mugikortasunari eragiten dioten lesioak izan arren, kasu batzuetan, lesioak dituen pertsonak bere ibilgailua gidatzen jarraitzeko modua izaten du, ibilgailua pertsona horren egoera fisikoari egokitzuz gero. Honelako egokitzapenak izan daitezke gidatzeko behar diren gailu batzuk automatizatzea, haietako baten egoera aldatzea edo segurtasun-neurri gehigarriren bat gehitzea.

Beste kasu batzuetan, berriz, ibilgailua aldatu behar izaten da, pertsona hori ibilgailuan bidaiari gisa sartzeko eta gurrupil aulkian garraiatu ahal izateko, eta horrela zaintzailearen lana errazteko.

Laguntza hauek, beraz, ibilgailua premia berrietara egokitzeko dira, edo familia-unitateak laneko istripu edo gaixotasun profesionala baino lehen zuen ibilgailua aldatzeko, alegia, modelo egokitu bat eskuratzeko; azken kasu honetan, laguntzaren bidez, egokitu gabeko ibilgailuaren eredu berarekin ateratzen den diferentzia ekonomikoa ordainduko litzateke.

Laguntza aitortzeko baldintzak

- Laguntza jasotzeko, eskatzailearekin bizi diren zuzeneko ahaideetatik batek ere ez du ohiko etxebizitzaren titulartasunik izango, eta, hala badagokio, egokitu gabeko aurreko etxebizitza saltzearen ondoriozko diru-sarrerak egokitutako etxebizitza berriaren kostua baino txikiagoak izango dira.
- Mediku txostena, edo Mutualiako Gizarte Zerbitzuena, berariaz adieraziz etxebizitza egokituaren beharra, baita etxebizitza horrek nolakoa izan behar duen ere, eta premia egoera berezia baloratzuz.

- Eskatzaileak jasandako ondorioak ezintasun iraunkor partzial gisa edo goragoko maila batean kalifikatuta egotea.
- Mediku txostena, edo Mutuialiko Gizarte Zerbitzua, berariaz adieraziz ibilgailua egokitzeko beharra, baita egokitzapen horrek nolakoa izan behar duen ere, eta premia egoera berezia baloratu.
- Premia ekonomikoko egoera egiaztatzea katalogo honen sarrerako atalean jasotzen diren parametroen arabera, baliaezintasun handiko egoeran edo antzeko garrantziko desgaitasun-egoeran dauden pertsonen kasuan izan ezik.
- Egin beharreko egokitzapenaren aurrekontuak eta argazkiak.
- gokituko beharreko ibilgailua istripua izan duen pertsonarena edo berarekin bizi den senide, ezkontide edo izatezko bikotekidearena izango da.

Laguntzaren zenbatekoa

Oro har, 18.000 euroko gehieneko zenbatekoa dago ezarrita, baina hortik gorako laguntzak behar dituzten premia espezifikoak eta horiei atxikitako eskariak ere aztertuko dira.

Ibilgailu egokitua erosteari dagokionez, laguntza jasotzeko ezinbestekoa izango da eskatzailearen zuzeneko senideetatik inor ez izatea beste ibilgailu egokitu baten titular, eta, hala dagokionean, aurretik ibilgailua edukiz gero hura saltzetik eratorritako diru-sarrerak ibilgailu egokitu berriaren kostua baino nabarmen txikiagoak izatea.



3.4. Etxeko laguntza, eguneroko bizitzako oinarritzko jardueretarako

Laneko istripu edo gaixotasun profesional batek eragindako lesioen ondorioz gaitasun funtzional edo/eta kognitiboetan aldi baterako kaltea duten pertsonak hirugarrenen laguntza behar izaten dute, kasu batzuetan, etxean eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko, beren inguru pertsonalean arreta hori jasotzerik ez dutela eta. Norberaren zaintzarako (higienea, janzteia, elikatzea, transferentziak egitea...), etxeko lanetarako, mugikortasun arazoei aurre egiteko laguntza eta abar sartzen dira atal honetan.

Laguntza honek aurreikusten du kaltearen arreta ematea, hura ordezkatzeko, erietxeko edo mediku alta jasotzeko unean medikuntza irizpideen arabera beharrezkoa badu eguneroko bizitzako oinarritzko jardueretarako aldi baterako laguntza jasotzea. Prestazio honek ezin du iraunkorra izan, ordea; hau da, unean uneko irtenbide modura hartu behar da: istripua edo gaixotasuna jasaten duen pertsonaren kalteen larritasunari eta familia egoera bereziari egokitutako irtenbide modura, hain zuzen.

Enpresa batek ez ezik, lesioa duen pertsonaren konfiantzazko beste pertsona batek ere eman dezake laguntza hau, baldin eta aldi baterako zaintzaile horrek honako baldintza hauek betetzen baditu:

- Ez edukitzea lehen mailako ahaidetza loturarik (ez izatea ezkontideak, seme-alabak edo gurasoak).
- Ez izatea ohiko helbidea etxebizitzan berean.
- Zerbitzua egiteko Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian alta emanda egotea.

Laguntza aitortzeko baldintzak

- Aldi baterako ezintasun egoeran egotea, edo laneko istripuaren edo gaixotasun profesionalaren ondorioz ezgaitasun handia duen pertsona bat izatea.

- Ez izatea senitartekoekin moldatzeko modurik; alegia, ez izatea istripua jasan duen edo gaixotasuna duen pertsonari modu naturalean arreta emango dion seniderik (senidea edo izatezko bikotea, bizikidetza-unitateko kideak, etxeko lanetan aritzen denik edo langabezia dagoenik, ezgaitasunik gabe).
- Mediku-agindua, edo Mutualiaren Gizarte Zerbitzuena, ahultasun-egoera baloratzen duena, eguneroko bizitzako oinarritzko jardueretarako (jatea, garbitzea, lekualdatzea eta abar) hirugarren baten laguntza behar dela adieraziz, ezinezko egiten dioten aldi baterako mugak izateagatik, eta mendekotasun-egoera horrek zenbat iraungo duen adieraziz.

Laguntzaren zenbatekoa

Laguntzaren gehieneko zenbatekoa zerbitzua emateko behar diren egunen arabera ezartzen da:

Astelehenetik ostiralera: 20,28 €/ordu.

Larunbat, igande eta jaiegunetan: 25,35 €/ordu.

Gaueko zerbitzuak: 142,5 €/gau.

Joan-etorrien ordainketa gehigarria: 0.19 €/ km

3.5. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak eskuratzeko laguntza

Ondorioak dituen lesio baten ondoren birgizarteratzean, tratamendu medikoak eta errehabilitaziokoak eskaintzeaz gain, pertsonari laguntza eman behar zaie, beren bizitza lanetik harago birmoldatzeko aukera emango dieten jarduerak egiteko.

Illo horretan, Mutualiako Prestazio Batzordeak helburu soziala duen prestazio hau eskaintzen du, bereziki laneko istripuaren edo gaixotasun profesionalaren ondoriozko ezintasun iraunkorra aitortuta duten pertsonentzat.

Prestazio honen bidez, zentzumen- edo mugikortasun-aldeetik muga garrantzitsuak dituzten pertsonari laguntza eman nahi zaie, ingurunearekiko harremana erraztuko dieten gailu informatikoak erosteko (ordenagailuak, telefono adimendunak, tabletak, eskanerrak, soinu-anplifikadoreak, etxeko domotikarako gailuak eta abar).

Laguntza aitortzeko baldintzak

- Laneko kontingentzien ondoriozko ezintasun iraunkorra aitortua izatea.
- Zentzumen edo mugikortasun-muga garrantzitsuak izatea.
- Premia ekonomikoko egoera egiaztatzea, katalogo honen sarrerako atalean agertzen diren parametroen arabera.
- Mediku-agindua, edo Mutualiaren Gizarte Zerbitzuena, adieraziz eskatutako gailu egokia den planteatutako beharrari erantzuteko eta, era berean, haren ahultasun-egoera baloratzeko.

Laguntzaren zenbatekoa

Oro har, 18.000 euroko gehieneko zenbatekoa dago ezarrita laguntza hauetarako, baina premia espezifikoak eta eskari atxikiak aztertuko dira.



4. BESTE PRESTAZIO BATZUK

4.1. Heriotzagatiko laguntzaren osagarria

Kontingentzia profesionalen ondorioz hildako langileen ehorzketa gastuak estaltzeko laguntza, barne direla garraio edo aberriratzeko gastuak, zendutako langilearen senide edo hurbilekoek ordainduak badira.

Heriotzatik eratorritako gastuak ordaindu izana egiaztatzen duen senitartekoari emango zaio laguntza.

Laguntza aitortzeko baldintzak

- Gastuei aurre egin dien senidearen izenean egindako faktura aurkeztea eta ordaindu izanaren egiaztagiria. Senide bat baino gehiago izan badira, eskatzaile bakoitzak ordaindutako zenbatekoaren arabera hainbanatuko da laguntza.
- Ehorzketa-gastuak ezin dira enpresa enplegatzaileak edo aseguru-etxe batek ordainduta egon.

Laguntzaren zenbatekoa

Oro har, 5.371 euroko laguntzak ematen dira.

Atzerrian hiltzeagatik, edo beste motibo batengatik, gorpua aberriratzeko ezohiko gasturik sortuz gero, modu indibidualizatuan aztertuko da kasua.

4.2. Baliaezintasun handiko egoeran dauden pertsonak zaintzeko prestakuntzarako laguntza

Pertsona batek ondorio larriak izaten dituenean laneko istripu edo gaixotasun profesional baten ondorioz, eta arreta eta zainketa zuzena, jarraitua eta etengabea behar duenean eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak garatzeko.



Gehienetan, zuzeneko senide bat bihurtuko da zaintzaile, eta ohartuko da bere lana ondo egiteko ez dituen eta behar dituen jakintzak edo estrategiak daudela.

Prestazio honen bidez, baliaezintasun handiko egoeran dauden pertsonen zaintzaileei lagundu nahi zaie, pertsona horiek zaindu eta artatzeko prestakuntza-ikastaroak egiten. Ikastaro horien edukiak honako hauek izango dira: segurtasuna eta lehen sorospenak, jarrera-aldaketak eta transferentziak, baliaezintasun handia duen pertsonaren autonomia pertsonala sustatzea eta abar.

Laguntza aitortzeko baldintzak

- Laneko kontingentzien ondoriozko ezintasun iraunkorra aitortua izatea, baliaezintasun handiaren mailan.
- Premia ekonomikoko egoera egiaztatzea, katalogo honen sarrerako atalean agertzen diren parametroen arabera, gizarte txostenean baloratu, halaber, bere ahultasun-egoera.
- Ezgaitasun handia duen pertsonarekin bizi den eta zaintza-lanak egiten dituen hauetako batek jaso dezake prestakuntza: ezkontidea, izatezko bikotekidea, seme-alabak, bilobak edo gurasoak.

4.3. Ohiko etxebizitza edukitzeari edo baliatzeari eusteko laguntza

Pertsona bat laneko istripu baten edo gaixotasun profesionalaren ondorioz baja medikoan dagoenean, aldi baterako ezintasunagatik prestazioa jasotzen hasiko da.

Kasu batzuetan, egoera horren ondorioz, enplegua galduko du edo antzeko ahultasun-

egoeraren bat izango da, eta horrek asko zailduko du familia-unitatearen oinarritzko gastuei aurre egiteko aukera, esaterako, alokairuari edo ohiko etxebizitzaren hipoteka-mailegua amortizatzea.

Laguntza honen bidez, hipoteka-maileguaren kuotaren edo alokairu-gastuen zati bati aurre egin ahal izango zaio, baldin eta, laneko istripuaren edo gaixotasun profesionalaren ondorioz, istripua edo gaixotasuna gertatu eta hurrengo urtean enplegua galtzen bada edo antzeko ahultasun-egoera bat gertatzen bada.



hipotekaren zenbatekoa. Nolanahi ere, hilean 1.056,9 euroko muga izango du hogeita lau hilekotan.

Eskatzailearen ahultasun ekonomikoko egoera balioetsiz joango da aldian-aldian, gehienez 5 eskaera aurkezteko aukera emanez (hasierako eskaera gehi gehienez lau berritze).

Lan-istripuak edo lanbide-gaixotasunak eragindako diru-sarreraren galeraren ondorioz familia-unitatea gizarte-bazterkeriako arrisku-egoeran sar daitekeen kasu espezifikoetan, aldi baterako % 20ko laguntza gehigarria aitortzeko aukera baloratuko da.

D 32.06/04 rev.9

Laguntza aitortzeko baldintzak

- Mutualiako kontingentzia profesionalen bajen batez besteko iraupena gainditu duen baja medikoaren prozesua, edo lan-istripuak edo gaixotasun profesionalak eragindako heriotza.
- Eskatzailea lanik gabe edo antzeko ahultasun-egoera batean egotea laguntza aitortzen zaion egunean. Alokairua izanez gero, ohiko etxebizitza alokatzeko kontratua izatea eskatzailearen edo harekin bizi den ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen izenean.
- Alokatuta egonez gero, ohiko etxebizitza alokatzeko kontratua izatea, eskatzailearen edo berarekin bizi den ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen izenean.
- Hipotekaren edo alokairuaren zenbatekoa hileroko ordaindu dela egiaztatzea

Laguntzaren zenbatekoa

Laguntza ekonomikoa: egungo diru-sarreraren eta lan-istripua edo lanbide-gaixotasuna izan aurretik jasotzen zituen diru-sarreraren arteko diferentziala, edo, gutxiago izanez gero, alokairuaren edo

